

NERE BIZITZA

Nere bizitzako lehen argi izpiak begiztatu nituenetik, nere bizitza erabat zorigaiztokoa izan zen, denek mespretxatzen ninduten, ez ninduten pertsona bat bezala hartzen, jostailu bat nintzen nere inguruko pertsonentzat. Nere haurtzaroa inoren maitasunik gabe iragan nuen, lur jota, etsita, bakarti, baina nere gurasoak ez ziren ni ulertzera iristen. Ama jokuan nuen beti, bere zorte txarrak onartu gabe, aita berriz mozkorra nuen, erotuta zegoen, jo egiten ninduen.

Nik ez nuen arrazoia ezagutzen, zer egiten ote nuen banik horrelakorik merezitzeko?

Goizean-goiz esnatzen nintzen egunkariak banatzen ibiltzeko, gero diru pixka bat lortzearren eguneroko ogia lortzeko.

Eskolan gelakideek jo egiten ninduten, iseka egin eta egin ez nuenagatik erredun jotzen ninduten.

Hau da, laburki; nere bizitza oztopo bat izan zen nere ingurukoentzat.

Nere urteak pasa arte ez nuen nere bizitza behar bezala antolatzen jakin nere ahizpak bezala. Nere ahizpa zaharrena erabat miresten nuen. Larrosa baten antzekoa zen, behin hosto bat erortzen zitzaionean, beste bat ateratzen zitzaion, baina azken hau ederragoa, miressgarriagoa, ideiak beterik.

Hemeretzi urterekin hiriburua joan nintzen, han, medikuntzan sartua zerbait baliagarria egiteko asmoz. Medikuntza oso ondo zihoakidan, mutil gazte bat ezagutu nuen arte.

Eskutitz anonimoak bidaltzen nizkion, ni ez nintzela bere ainekoa pentsatzen bait nuen. Zorionsu ginen Andoni eta biok izkutuko eskutitz haiekin, baina berak behin eta berriro azaltzen zidan bere gutunetan ezagutu nahi ninduela, nahiz liraina edo itsusia izan, nahiz trebea ala traketsa, nahiz zintzoa ala gaiztoa. Ez zuela axola nere itxurak, nere bihotzaren sakonean zegoenak baizik eta berak, ia aurkitu zuela nere itsusitasunak estaltzen zuen edertasuna. Azkenik konbentzitu ninduen eta zita batetara iritsi ginen.

Iritsi zen egun desiratua. Iadanik berandu zen atzera egiteko, gure lotsak eta ahultasunak gorde behar genituen. Han nengoen ni, herriko enparantzako banko batetan eserita (geratu bezala). Eta han agertu zen erabat apaindurik. Ezin nuen sinetsi gizon hura niregana zetorrenik. Urduritasunak, momentu haietan bolara txar bat pasa arazi zidan, zorabiatzera nindoan, baina nere buruari tinko eutsi nion. Haietan, Andoni beste banko batetan eseri zen eta bost minuturen buruan joana zen. Banekien atzera egingo zuela. Banekien, egi hori politegia zela erabat egi izateko. Ezin izan nituen eutsi nire malko potolo eta gardenak.

Berriro, eguneroko rutinak menpekotzat hartu ninduen, esperantzarik gabe. Nere burua gorrotatzera ere iritsi nintzen. Behin ordea, ezustekoaren-ezustekoa gertatu zen. Hospitaleko pasiloetan elkartu ginen Andoni eta biok. Gure begiradak gurutzatu genituen eta nik ez nuen indarrik sentitu atzera egiteko. Belarrondoko bat emateko gogoia ematen zidan baina bestalde muxu bat emango niokeen baina lehenengo aukera aukeratu nuen, nere gogortasuna adierazi behar nion. Hurbildu eta:

— Hemen nauzu, zuk nahi bezala—. Ezin izan nituen malkoak eutsi eta balarrondoko bat eman nion korrika aldeginaz. Berak ordea besotik heldu eta bigarren aukera hautatu zuen.

Momentu hura ez nuen inoiz ahaztuko, segundu hura, jende guztia begira nuen une hura.

LEIRE OYAGA